


Astekaria

BARRREN elgoi



**HERRAMINTA MAKINA AZOKA:
Elgoibarko enpresen elkargunea**



GOGORATU... SUKALDE IKUSGARRIAK !

ete.

B anatzaila oficiala

FAGOR 

ERREBAL 15, BEHEA. TF: 70 24 18 - EIBAR • TRENBIDE 23, BEHEA. TF: 74 37 87 - ELGOIBAR

arli


GARBIGAILU, LEHO GAILU ETA PLATER GARBIGAILU AUKERA HANDIENA



32.900 pta.
GNIS AWL-319 GARBIGAILUA
 400 R.P.M.ko zentrifugatua
 Hotzean garbitzeko aukera



PREZIO GUZTIAK BEZa BARNE



3
 3 URTSAKO GARANTIA
 MILAR



Albornaz bot
 Lopari gisa

58.900 pta.
CROLLS RT-9821 GARBIGAILUA
 400/650 R.P.M. zentrifugatua.
 Karga erdi automatikoa

ARTEGI taretak erraztasunak ematen dizkizu:

DOHAINEKOA ETA TRAMITERIK GABEKOA

Abalik gabe eta zeharo dohainik.

BEREHALAKO KREDITUA

Kreditua eskatuz gero, momentuan bertan izango duzu azken nomina eta NANA erakutsita.

ORDAINTZEKO MODUA AUKERAN

Hiru hilabeteko epea interesik gabe.

59.900 pta.
WHIRLPOOL ADP-236
PLATER GARBIGAILUA
 3 garbiketara programa



79.900 pta.
WHIRLPOOL AWG-180
GARBIGAILU-LEHORGAILUA
 Sky. garbitzeko gaitasuna
 800 R.P.M.ra zentrifugotua



MILAR ARTEGI

San Frantzisko, 40 ELGOIBAR Tel. 74 06 87

elgoiBARREN

Nafarroa enparantza 2

w= 74 41 12

ARGITARATZAILA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Irlaki Arrieta, Aniton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBUZITATEA:

Nekane Efixan iz.

ADMINISTRATZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOTABORAZAH.EAR:

Irati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ana Myriam Aldozabol, Isabel Ansoko, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Eixaniz, Sugar **Eboniz**, Felix Etxeberria, Izaro Eixegibel, **Enetz** Ezenarro, I tziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Iarrariaga, Imanol Larraiaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, maki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanoi Larrañaga

INPRIMATEG/A:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X 4",

elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitoko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU



HAINBAY LIUULW

Beha ezko digesfe baten alde

! railaren 23ko *elgoiBARRENe* "kexak" atalean agertutakoak ernan dit gaurko hutsune hau betetzeko hipidea. Kexa Inazio ● Bereziartua Musika Eskolak egiten zuen. Nik ez nuen ulertzen zertan zetzan kexa, eta bati eta besteri Galdetu behar izan nion auzia zertan zen erabakiko banuen, nire buruan kabitzen ez zen kexa baitzen hura.

Eskatzen zitzaizen Ikastetxeei ados jar zitezela eguerdiko bazkalorduak erabakitzerakoan ... Zergatik, eta musika-saiora joateko aukera izan zezaten haur gizarajo-gajoeak. Postrerik hartzeko aukerarik gabe geratuko dira; ez dute goiz guztia ikastola-eskoletan pasa ondoren behar bezalako (digestio eta guztiko) atsedetik izango ... baina Mozartxoak izango dira. Musikatik irten eta gero berriz eskolara, eta handik irtetean merienda jateko momentutxo bat eta berriz partikularretara; solfeora, ingelesera, informatikara, ...

Nagusiki hiru aro ditugu bizitzan zehar: haurtzaroa, heldutasuna eta zahartzaroa. Aro bakoitza desberdina da, baina beharrezkoa hurrengora pasatzeko. Gainera, bakoitza bere


garaian bizi behar izaten da. Eta haurren garaian haur izan behar da. Eta zer egiten da haurtzaroan? JOLASTU. Baina nekez egingo du jolas egun guztian zehar esko]an ezezik partikularretan ere dabilen haurrak, ezertarako betarik ez duen haurrak.

Badirudi helduok geure bizitzak seme-alabenetan jarraitzen saiatzen garela; gure buruentzat nahi dugun arrakasta haiengan bizi nahi izaten dugula, baina askotan haien baimenik eta oniritzirik gabe. Dena nahi dugu seme-alabentzat, baina seme-alabarik gabe.

Saturatu egingo ditugu, nekatuak iritsiko dira heldutasunera, behar adina joiastu ez direlako, behar baino lehenago ezarri zaizkielako erantzukizunak, konpetitibitate giroan hazi eta hezi ditugulako. Behar baino lehenago ekarri ditugu gure mundu latzera, ulertzen ez duten mundura, eurek ezagutzen ez duten mintzaira darabilen mundura, oraindik aurrez aurre hartu ezin duten mundura oraindik ezagutu nahi ez duten mundura. Eta ez da ahaztu behar etorkizuna hauen esku dagoela.

Jesus Mari Makazaga

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundietan eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



1\1111111

Ba al daukate Polikiroldegiko arduradunek markagailu elektronikoa konpontzeko asmorik?

Polikirolde_giko _gerentearekin e_gon _gara eta baietz erantzun digu. Rokodromoa jarri zenean mu_gitu e_gin behar izan zuten eta ordutik ez omen du ar_gi indarrrik jasotzen. Dena ondo badoa, hilabete aurretik marka_gailua berriz ere martxan egon_go dela aitortu di_gu.

12110111

Iralurle batek deitu digu Txankakua Merkataria Elkartea txalotzeko. Herriko hainbat kirol elkarte diruz la_guntzeko hartu duen erabakia benetan zuzena eta poz_garria dela iruditu zaio. Ea erabaki hau beste batzuentzako eredu izaten den.

OKERRAK ZUZENTZEN

BARRENe_go 81. alean, hirukiei buruzko erreportaiari, "Lauko" baserrian Iaukiak jaio zirela esan _genuen. "Lauko" baserriko Jose A_gustin Olasolok, han ez dela inoiz laukirik jaio azaldu di_gu. Baserriaren izena, "Lauko", nondik datorren ez dakien arren, ziur dago ez datorrela han laukirik jaio izana_gatik.

BARREN

ESKUTITZAK

AHTaren aurkako ibilaldia

gandean, urriak 30, Abiadura Handiko Trenaren aurkako mendi ibilaldia e_gingo da Antzuolan. AHTaren Aurkako Asanbladak antolaturiko ibilaldia, goizeko 10etan abiatuko da Antzuolako herriko plazatik eta Anti_guako auzoaren in_gurura, **AHT** proiektuak afektatuko Iukeen zonaldera, hurbilduko da. Ondoren, herri bazkaria ospatuko den Pikuñeta baserrira zuzenduko da Irimo mendian barrena.

I_gandeko ibilaldia, azken e_gunotan "Txikizioa trenean dator _gure lurra zeharkatuz" lemapean Antzuolan burutu diren AHTaren aurkako ekintzen artean antolatu da. AHTaren Aurkako Asanbladak datorren igandeko ibilaldian parte hartzera dei egiten du eta **AHT** proiektu premiagabekoa bezain irrazionala dela adierazten du, bai suposatuko duen eraso ekolo_giko izu_garria_gatik eta bai _gizarte ereduaren_gan inplikatzeko duen era_gin desarrolista bortitzaren_gatik ere. **AHTaren Aurkako Asanblada**

EAJ/PNVren boto escaria:

H auteskunde bezpera zen bidalitako _gutun bat aurkitu nuenean. Zer ote zen? Zalantzan jartzea ere! Tonta halakoa. Urtean behin bada ere, "gure politikoak" _gutaz akordatzen direla ohartu nintzen. El_goibarko Uri

Buru Batzarrak EAJ/PNVri botoa emateko eskatzen zidan. Lehendabizi _gazteleraz, gaztelera jator eta zuzenean. Ondoren euskaraz. Errepasa ezazue une batez bederatzi-hamar lerrotan zenbat perla dauden:

"Kaixo lagun:

Jakingo duzun moduan datorren Urriak 23an *Euskal Autonomiariako* Hauteskundeak *ozpatzen* ditugu.

Pentsatzen ba duzu _gure etorkizuna Eusko *Jaurlaritz* indartsu baten *harabera* da_goela. Pentsatzen *ba duzu* Euskal Herria mundu mailan herrialde puntero bezala jarri dezakela. Pentsatzen *ba duzu* Euskal Herri konpetitibo bat lortu *dezakela*. Zuk Eusko Alderdi Jeltzaleko jendeen modura pentsatzen duzu.

Zure pentsaera plazaratu, datorren 23an BOTA EZAZU...".

Eta _gaztelerazko testuan "selebramos", "Elecciones a la Autonomia Vasca", "sipiensas", "dehepende", "Gobierno Vasc", "las gentes" eta horrelako astakeriak ikusiko bagenitu, zer pentsatuko genuke? Izkutatuzko gauza izango al _ginateke horrek sorraraziko zigun lotsa?...?

EAJ/PNVko idazkien arduradunoi mesede txiki bat eskatu nahi dizuet: horrela idazteko ez ezazue _gehia_go euskaraz ezer idatzi. Gaztelera hutsez idatzita askoz ere kalte gutxiago e_gin_go diozue euskarari.

Zeñores del PNV, un poko de errespeto !
I.E.





fo rgazki hau Gemma Monrealek eka-
rri digu. Aita Agirre eskola publiko-
etan aterata dazo eta 1954. urteko
ikasturte bukaerakoa da. **Claudio
Monreal** irakasleak, argazkian kor-
bataduna, 1964. urtera arte eman zituen klaseak.

Ikus dezagun zeintzuk diren argazkiko mutikoak:
Goian atzean: **Claudio Monreal** irakaslea.

Lehenengo ilaran: **Jesus Mari Gabilondo, Sabin
Txurruka, ezezaguna, Tomas Barandiaran, Jose**

**Antonio Iriondo, Luis M. Barandiaran, Iñaki
Murua eta Carlos Larrañaga.**

Bigarren ilaran tente: **Juan Igartua, Juan Anso-
la, Carlos Ortueta, Jesus M. Canales, Manolo
Osoro, ezezaguna, Jose Agustin Olasolo "Lauko"
eta Juan Mari Andonegi.**

Hirugarren ilaran: **Luis Altuna (makurtuta), Juan
Esnaola, Manuel Elorza, Javier Mujika, Santi
Oria, Vieente Sainz (t), Julian Iriondo, Manolo
Ibarluzea, Gregorio Sainz eta Jesus Arakistain.**



CARMELO SANZ ORTUZAR



*Urriaren 22an hil zen
CARMELO SANZ ORTUZARen ahaideok,
ESKERRAK eman nahi dizkizuegu
haren hiletara joan zinetenoi,
sarnin agurrak bidali eta une lcitz honetan lagun izan
zaituztegun guztioi.*

18 EPRIGIT

BILBOKO ERREMINTA MAKINAREN 18. BIENALA

1990 urtean hasitako krisia erahat igarri da parte hartu duten fabrikatzaile eta bete diren pabilioi kopuruan. Orain bi urte, zazpi pabilioi bete ziren eta aurten bost baino ez dira izan, 18.913 metro karratu guztira. Erakustailak ere aurreko ferian izan zirenen erdiak baino ez dira izan, 843 enpresa eta 286 erakustoki edo stand. Zenbait erakustailen artean feriak sortutako inpresioa nahiko eskasa izan da, bisitari gutxi egon

Bilboko Erreminta-makinaren 18. bienala bukatu berri da. Bilboko erakustazokara joateko Elgoibarko enpresen ohitura aspaldikoa da, lehen joaten zirenak orain ere joaten jarraitzen dute. Hala ere, herriko enpresak lasaten ari diren momentu txarren islada da beste batzuetan baino espazio gutxiago hartu dutela aurten.

1 990 urtean hasitako krisia erahat igarri da parte hartu duten fabrikatzaile eta bete diren pabilioi kopuruan. Orain bi urte, zazpi pabilioi bete ziren eta aurten bost baino ez dira izan, 18.913 metro

karratu guztira. Erakustailak ere aurreko ferian izan zirenen erdiak baino ez dira izan, 843 enpresa eta 286 erakustoki edo stand. Zenbait erakustailen artean feriak sortutako inpresioa nahiko eskasa izan da, bisitari gutxi egon

Zer nolako makinak dauzkazue



Felix Bergua
DANOBATEko ipar aldeko ordezkaria

44 Grupo Danobat-ek Danobat, Soraluze eta Lealde enpresak eta Ideko ikerketa zentrua biltzen ditu. Danobat da handiena 400 langilerekin. Standaren barruan D+S deitzen duguna dago, Danobat+Soraluze, rnakina bereziak egiten dituzte



baina oso handiak direnez, argazkiak ekarri ditugu. Chinarako lanean ari gara azken aldian.

Kontrol numerikodun errektifikatzaileak eta tornuak aurkeztu ditu Danobatek. Soraluzek fresadoreak eta mekanizatu zentruak eta Lealde kontrol numerikodun tornuak. Honez gain, Danobatek zerrak aurkeztu ditu. Fabrikatzen dugun %75a automozioaren sektoreari zuzendua dago; tartean, Estatuko eta atzerriko enpresak daude: Portugal, Alemania, EEBB, Ingalaterra eta Suecia batez ere".



Felipe Arozena
GEReko esportazio arduraduna

Kontrol numerikodun makina bat ekarri dugu, makina nahiko sofistikatua. Izan ere, oso zaila da mundu honetan ezer berria asmatzea; ahalgintzen gara gauzak gero eta sofistikatuagoak bihurtzen.

Azoka nahiko motela



izan dela iruditu zait aurrekoekin konparatuz. Erreminta-makinaren krisia gaintitzen doula esaten dute; momentu txarrenak igaro direla. Aurten dena dela, beste azoka batzuetan baino stand txikiagoa hartu dugu.

Sektore ezberdineta-ko bezeroak ditugu: molde fabrikatzaileak, hegazkinen sektoreko enpresa auxiliarrak, auto-rrnobilien sektorekoak eta hauekin lotutako enpresa auxiliarrak, lan berezien sektorekoak... European bezero asko ditugu, EEBBetan, Canadian..."



GRUPO
MANIPULAT

omen da, eta bisitariak gutxi izan badira, bezeroak ere gutxi, noski. Beste batzuek, ordez, balorazio gutziz positiboa egin dute.

Hilaren 19tik 26ra bitartean Bilboko Nazioarteko Erakustazokak eta Erreminta-makinaren

Fabrikatzaileen Elkartek, AFMk antolatuta, Erreininta-makinaren 18. Bientala burutu da. Estatutik eta nazioartetik etorritako enpresek osatu dute partehartzaileen zerrenda, tartean, herriko 20 bat enpresa daude. Garrantzitsuena,

ordea, erosleak dira, Errusiatik, Alemaniatik, Frantziatik, Hego Amerikatik eta Asia aldetik etorritakoak, hain zuzen.

Erreminta-makinaren sektorearen osasuna neurtzeko balio izango du dudarik gabe Bilboko azo-

kak. Krisia gainditzen dagoen ala ez ikusteko balio izango du. Itzaropenaren ferria othen da enpresa askorentzat, esportazioek gora egin dute, produkzioaren %70a atzerria saldu da eta sektorearen fakturazioa %20an igo da. Dena den, 1990. urteko azokan goia jo zuen sektoreak. Salmentak 103.000 milioikoak izan ziren urte hartan eta laz, berriz, erdira jeitsi ziren. Sektorea indarberritzeko eta gure herriko industria berpizteko, barruko merkatura begira daude enpresariak, beti ere, finantziario modu arinagoak bultzatzen badira.

Elgoibar, erreminta-makinaren zutabe

Duela urte batzuk, Gipuzkoak %45a suposa-

ferian ikusgai?



Jose Mari Riaño
KONDIAko gerentea

dis Mekanizazioarako zentruak ekarri ditugu: mekanizazioarako zentru bertikalak, zutabe mugikorak, zutabe bikoitzduinak, grafitoa lantzeko makinak, CNC fresadorak, makina hidranliko kopiagailuak, torreta bertikalak fresadorak eta makina bereziak. Guztiak



dira fresadorak, kontrol numerikoaren bidez agindu ezberdinak bete ditzakete. Aurkezten dugun makinaren artetik, HM 1060 modeluko zentru mekanizatu bertikalak da berriena. Tekono logikoki, aipatu, Kondiak bi urtetik behin zentru berri bat ateratu duela. Zentru berritzaileak dira, ez bakarrik ezaugarri fisikoei dagokienez, makinaren kontzeptzio ezberdinak dira.

Mugimendua ikusi da, amerikarrak, frantsesak, alemanak, e.a. egon dira baina besteetan baino gutxiago."




Pilar Pedrosa
IZPEko esportazio arduraduna

4,1 Tamalez, ezin izan dugu gure azken berrikuntza azokara ekarri. Sistema berri bat da, piezak estriatzeko, askoz azkarrago egiten du lan, erremintaren buelta bakarrean, hain zuzen. Ikusgai birutarik ateratzen ez duten errokadun eta estriadun laminatzaileak



leak ditugu. Materiala deformatuz egiten dute lan, hotzean. Hegazkinen, elektragailuen eta automozioaren sektorearentzat egiten dugu lan. %70a esportatu egiten dugu Canadara, EEBBetara, Mexicora, Arjentinara, Italiara, Frantziara eta Australiara eta urruneko beste herrialde batzuetara ere bai.

Beste urte batzuetan baino makina gutxiago ekarri ditugu, baina joera hau nagusitzen ari dela uste dut, bideoaren bidez erakusten da gero eta gehiago."



Erraminta-makinaren sektorea berpizteko, barruko merkatua indarberritu behar da.

zuen Estatuko Erreminta-makinaren sektorean, eta Elgoibarrek %25a, hortik datorkio Elgoibarri "Erreminta-makinaren hiriburta" izendapena. Proporzionaliki, elgoibartarrak nagusi izan dira

azokan. Hogei bat erakustoki eta 206k gora enpresa izan dira. Honako enpresa hauek hartu dut parte:

Mupem (Itziar), Anayak (Itziar), Agme (Eibar), Aisiakin, Bronces Garitano, Grupo Danobat,

Estarta Ingenieria y Maquinaria, Etxe-Tar, Patronik System, Ferreteria Unceta, Geminis, Ger, Goitek System, Goiti, Hidraulik Ring, Ina Rodamientos, Industrias Metalla, Izpe, Kondia, Maqui-

naria Lagun. Metrologia Sariki eta Talleres Lan-Bat.

Zer da azoka bat?

- Teknologia eta berrikuntza aldetik, azken aurrerakuntzak erakutsi ohi dira azoketan. CIMA-nontzeko enpresek etziten dutena ikusteko leku aproposa, eta zenbaitetan ideia berriak hartzeko gune ere bai, kontrot mota berriak, kargarako modu berriak... Dena den, enpresek lizentziak saltzen dituzte beraien artean, heste enpresa hatznez garatutako produktuak erabili eta saldu ahal izateko.

- Azokaren kontzepzioa aldatzen ari da. Lehen makinak askoz sinpleagoak ziren eta azokan bertan salerosketa kontratuak egiten ziren. Gaurre-



Karmelo Benavente

Estarta Ingenieria y Maquinaria S.A.ko zuzendari gerentea

44 Azokara ekarri dugun zentzurik gabeko errektifikatzailea, munduan aurreratuenetariko bat da, guztiz berritzailea. Sensoreen proiektu bat dauka, desgasteak, deformazioak... den dena kontrolatzen duena. Prezisio handikoa da, mikra azpitik lan egiten du. Mantenu eta txekeorako kontrolak dauka. Guzti hau hiru

Estarta Ingenieria & Maquinaria s.a.

urteren buruan Madrileko Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiari esker gauzatu da. 1995erako salgai izatea espero dugu.

Azken aldian, Asiatik, Hego Ameriketatik eta batez ere, Brasiletik ari dira erosleak sortzen. Brasil erosle handia bihurtu da. Guk %60a esportatu izan dugu, errektifikatuetan %75era ere heldu izan gara. Sektorea indarbertzeko bankuen finantziarioa beharrezkoa da, horrela Gobernuaren gonapetik atereaz. Aurreko azoka "traurna"ren azoka izan zen, honako hau "itxaropena"rena izatea espero dugu."



Cruz Arriola

LAGUNeko zuzendari gerentea

64 Kontrol numerikodun fresadorak, "de bancada fija" ekarri ditugu. Munduan 36 distribuzio ditugu, Europako, EEBBetako eta Asiatik Australiarainoko merkatuak dira inportanteenak. Kontrol numerikodun makinak saltzea zaila da kompetentzia handiagatik. Gure esportazioak %55ean dabilta.

Lacun

Kanpoko merkatua hobetu da, barmkoa baino gehiago. Ez dago lehengo "alegria" inbertsioan. Finantziarioa oso tantea da eta bankuek oztopoak jartzen dituzte. Espainiako Gobernuaren sektore hau industriaren oinarria denaz ohartu eta zerbait egin behar du gure aberastasuna altxatzeko. Teknologikoki ez gaudela prestatuak esaten dute kazetariak. Nik erantzuten diet gure teknologia makinak egitea dela, besteek saltzen duten teknologia erabiliaz. Sektoreak %60a esportatu du azken urtean, ez da egia ez dagoela esportaziorako izpiriturik."

gun aurkezten diren makinak oso sofistikuak dira, halio erantsi handia dute eta salmenta ez da lehen bezala zuzenean egiten. Salmentak epe luzera begira izaten dira. Hilabeteetan negoziatzen ibili ostean, operazioak isteko gunea izan ohi dira azokak.

- Azokan parte hartzeko alde aurretik presakuntza ugari egin behar izaten dira. Azokara etorri aurretik gau eta egun egiten dute lan, erakusgai egongo diren makinak bukatu ahal izateko. Ekonomikoki esfortzu handia egin behar izaten dute, gastu ugari sortzen dira: stand-en alogerak, dekorazioa, makinaren garraioa, gruak, makinak geldituak sortzen dituen

galerak, langileak ferian edukitzea... Hala ere, horrelako esfortzua egiten bada, merezi duelako izango da.

- Estatu mailan lehendabiziko azoka da Bilboko. Bartzelonan urtero egiten da Errarninta-makinari hurrerako azoka baina azken urteotan asko jeitsi da haren garrantzia. Munduan burutzen diren garrantzitsuenetariko bat da Bilboko eta bi urtetik behin egiten da, Milaneko, Japoneko, Chinako, Portugalako, Chicagoko eta beste herrialde batzuetako azokekin batera. Tartean, urte ez paretan, mundu mailako erreminta-makinaren azoka, EMO izeneko egiten da eta urte horretan ezin da bestelako azokarik burum.



• E: Enpresek aurrerapen inportonteenak erakusten dituzte.



Jess, s Martinez
HYDRAULIK RINGeko komertziala

44 Bi arlotan egiten dugu lan: arlo didaktikoan eta arlo industrialean. Industria adarrean elementu hidraulikoen kontrolerako osagai hidraulikoak eta elektronikak fabrikatzen ditugu, erreminta sektorean erabiltzen direnak. Adar didaktikoan hezkuntz zentruetan teknika hauek irakatsi ahal izateko egiten dugu lan. Neumati-

*HYPTDMAILZI7ff
7Zfl&g0*

ka eta hidraulika lantzen ditugu, eta arlo industrialean hidraulika bakarrik.

Gure stand-etik hidraulika proportzionala aipatuko nuke. Gauza nahiko berria da. Sistema hidraulikoen abiadura kontrolak, motore edo zilindro hidraulikoen kontrolak e.a. egitean datza. Elektromekanikoek baino zehaztasun, potentzia eta estabilitate handiago dute. Gure produktuak enpresei eta hezkuntz zentrueri, IMHri, Lanbide Heziketarako Institutuari... zuzenduak daude. Hezkuntz zentruetarako eta enpresetarako produktua berbera da."



Jesus Ruiz de Gauna
GOITiko teknikoa

g4 Deformaziorako erreminta-makina egiten dugu guk. Gure produktu estandarra txapa zulatze-punzonadora arrunta da. Ekarri dugun berrikuntzen artean aipagarriena lepo itxia duen punzonadora da, txapa ebakitzeko gillotina bat duena. Paneladorak ere ekarri ditugu. Munduan laupabostek egiten ditugu mota honetako makinak.

GOITI

Portugal eta Hego Ameriketara esportatzen dugu, Colombiara ere bai azken aldian. Inghaterran sartzeko ahaleginetan gabiltza orain. Japoniaren lizentzia batekin jardun dugu lanean baina lizentzia horrekin ezin genuen Europara esportatu.

Azken azoketan gure stand-a handituz joan da. Deformazioen atalean gurea da handiena. Punzonadorekin duela 12 bat urte hasi ginen eta urterik urte hazten joan gara.

Azooka ondo joan da, gurera etorri direnak interesarekin etorri dira. Dena den, inbertsiorako animo gutxi omen dago."

Juan Santos Ortiz de Villalba "Añana".**"Ebanjelioaren abentureroa naiz ni"**

1939ko azaroaren 2an jaio zen, Errosario kaleko 2. zenbakian. "Kastadun" gizona da, beraz. Hamaika hizkuntza dakizki, hogeita hamar liburu idatzi ditu, Arkeologia eta Antropologia ikasketak egin zituen Mejicon baina, batez ere, gauza guzti hauen gaintetik, ebanjelioaren abenturerotzat du bere burua. Frantziskano kaputxinoa da eta 25 urte besterik

ez zituenean Ecuadorrera joan zen, Amazonas-ko oihanera. 25 urtetan bizi izan zen bertako indioekin. Europa, Amerika, Asia, Afrika eta Ozeania, denak ezagutzen ditu. Gaur egun Txinan dago baina, oraindik ere, toki asko ikusi nahi ditu, gauza asko ikasi, jendea ezagutu nahi du. Juan Santos Ortiz de Villalba da bera, herrian hain ezaguna den "Atiana".

- Non daude zure sus-traiak?

- Hemengoa naiz ni, elgoi-bartarra, hor ez daukat inongo zalantzarik. Baina Euskal Herria ez zait gustatzen bizitzeko, txikia egiten zait. Herri indartsua da, sutsua, ketnentsua... baina nik mundua maite dut.

- Horregatik joan al zinen oihanera?

Beti izan naiz abenturazalea. Ebanjelioaren abentureroa naiz ni. Nire lana indioei herri bat zirenaren kontzientzia sartzea zen. Euskal Herriaren antzeko zerbait da hura. Eskolak ireki genituen, quichua hizkuntza, beraien hizkuntza erabiltzen irakatsi genien, euren historia kontatzen zuten liburuak argitaratu genituen... Mundu berri bat egin genuen, beraien mundua.

- Zer zen gogorrena?

Munduaren kontrako borroka da beti gogorrena. Gizarte honetan ez gara askeak nahi duguna egiteko, beti daukagu loturaren bat, familia, bikotea, lana... Eta horren aurka borrokatzea da zailena, zure bidea jarraitzea.

- Nola bizi dira?

- Ekonomikoki oso egoera txarrean baina bizitzaz



"Heriotza reineta sagar goxo bat bezalako dela irudikatu nahi dut"

gozatzen dakite, asko. Bada ipuin bat askotan kontatzen dutena. "Bazen behin Condorito izeneko gizon bat hondartzan, eguzkitan etzanda eta koko izoztu bat edaten. Amerikar aberats bat joan ziztaion eta lan egiteko esan zion, gogor lan egiteko bere txalupa txikiaz arrainak jaso eta saltzeko. Diru horrekin txalupa handiago bat erosiko luke, arrain gehiago harrapatuko eta itsasontzi erraldoiagoea erosiko. Diru gehiago, gauza gehiago... "Zertarako?" galdetu zion Condoritok. "Eguzkitan etzan eta lasai

bizitzaz gozatzeko", erantzun zion amerikarrak. Eta Condoritok, "Ez al da ba hori orain egiten ari naizena?"

- Zer da heriotza?

- Bertsio ofiziala eman diezazuket, baina nahiago dut heriotza reineta sagar goxo bat bailitzan irudikatzea.

- Maitemindu izan al zara?

- Bai, mundu guztia bezala. Baina bizitzan aukera asko egin behar dira eta bide bat hautatzeak beste bat baztertzea dakar. Nik orain nahiago dut, pertsona bakar bati beharrean, ahalik eta gehienei eskaintzea nere

maitasuna. Dena den, orain horrela pentsatu arren, bihar agian, aurkako iritzia izan dezaket.

- Zer utzi duzu atzean?

Zaldi gainean nagoenean aurrera begiratzen dut, atzean malkoak bakarrik daude eta. Maisu batek esan zidan behin guk zementuzko hautsez eginitako bihotza daukagula, zenbat eta malko gehiago erori gudan, orduan eta gogorra goa egiten zaigu bihotza. Eta egia da, sensiblea izan zaitezke baina bizitzak gogortu egiten zaitu.

- Zer geratzen zaizu egiteko?

- Dena, hasi baino ez naiz egin. Nik oraina bizi dut. Egun bakoitza bakailoa pili pilean bailitzan dastatzen dut, poliki poliki, maitasunez eta gustu handiz.

- Hamaika hizkuntza dakizkizu.

Bai, gaztelera, euskara, katalana, frantsesa, ingeleza, quichua, txinoa, latina, italianoa, grekera eta hebreoa.

- Agurtu zaitez quichue-raz eta txinoz.

- *Samashwn* esaten da quichue-raz "atsedena har dezagun" esan nahi du. Txineraz, berriz, *Ilu ping ang*, "pakea zure bidean".

Kitil3 ARREINI 1

Mendaroko gehiagarria

Urriak 28

10. Alea

Geroz eta gutxiago gara iiendwoor

Mendaroko biztanlegoa beherantz doa. Azkeneko hamaka urteotako errolda aztertuz gero, jaiotakoen eta hildakoen artean alderik apenas ez dagoela ikus dezakegu. Gaur egun duela 11 urte baino 353 pertsona gutxiago bizi gara Mendaron. Bestalde, eta datu bitxi bezala, 1983an gizonezkoak baino bi emakume gehiago ginen. 1994an, oster, gizonezkoak gehiago dira, 43 hain zuzen ere. Populazioaren gutxitzearen zergatiak aztertu nahian kaleko jendearen iritzia eskatu dugu.

Gaur egun duela 11 urte baino 353 pertsona gutxiago bizi gara Mendaron. Zergatik?

Juanita Iriondo (39 urte, etxeoandrea)

Azkeneko 16 urtian ez dia etxebizitzak egin eta jendia kanpora juten da. Lanpostuak ere gutxitu egin dira, lehen tailer asko zegoen baina orain gutxiago.



Enekoitz Elorza

(18 urte, ikaslea)

Jendea ezkontzen darian ez du nahi izaten herri txiki baten bizitzea, nahiago du kanpora joatea. Antisorgailuengatik ere ba dela uste dut.

M.Teresa Iriondo (57 urte, etxeoandrea)

Jun dan 18-20 urtian ez da etxebizitzarik egin. Bere sasoiari etxebizitzarik ez danez egin, denbora horretan ezkondu dan jendia kanpora jun bihar izan da. Lanposturik ere ez da egon.



Joseba Zulaika

(27 urte, tabernaria)

Azken urteetan inguruko herrietan egin dira etxeak eta jendea kanpora joan da bizitzera. Ez dut uste lanpostu faltagatik denik.

Udal erroldaren konparaketa

	GUZTIRA	Gizonak	Emak.	1980	1985	Enti r.	bun'
19a	1.220	862	864	10	14	24	1
1986	1.339	801	783	4	10	17	5
1989	1.541	786	755	8	10	52	7
1992	1.424	732	692	10	6	30	7
1993	1.397	722	675	11	5	32	11
1994	1.373	708	655				7

Uholdeen aurkako defentsa eta Deba eta Kilimon ihaien bideratzea

Prest dago, jadanik, uholdeen aurkako defentsa eta Deba zein Kilimon ibaien bideratze proiektuan afektatutako terrenuen erabilera. Ondorioz, bigarren faseko obren adjudikazioarekin has daitezela adieraziko zaio Eusko Jaurlaritzari.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak

Joan den igandean ospatutako hauteskunleetan honako hauek izan dira Mendaroko emaitzak:

Hautesle kopurua 1166
 Baliogabeko botu kopurua 5
 Botu zuriak 7

HAUTAGAI ZERRENDAK

EAJ-PNV332
HB 175
EA 103
PSE-EE 70
PP 27
IU 21
CNPS 1

Udazken Eguna

Gaur, ostirala, urriak 28, Udazken Eguna ospatuko da ohitura den legez. Gaztedi taldeak antolatzen du urtero aipatu ekintza eta hara hona zein nolako egitaraua finkatu duten gaurkorako. Jaia arratsaldeko 5,30etan hasiko da. Afari-merienda bat izango da nahi duten guztientzat, tokiari dagokionean, berriz, Santa Ana. Ondoren, bapo afaldu eta gero, zazpi t'erdia aldera txikiteoa izango da eta horretarako jendeari dei egiten zaio baserritar jantzi daitezen. Gau partera, berriz, eta eguna ondo baino hobeto amaitzeko dantzaldia izango da *franco* taldearen eskutik. Gaueko 11etan hasiko da, Goñati pilotalekuan.

Deba beheko turismo ganonfnan



Irailaren 30ean eta urriaren leian, DEBEGESA, DEBEMEN eta Elgoibar, Mutriku, Deba eta Mendaroko Udaletxeetako ordezkariak Frantziako Lascaux kobaren berregintza eta bere inguruak ezagutzera joan

ziren. Bidaiaren arrazoia, batez ere, Debako Ekain kobaren erreproduktioarako ideiak hartzea izan zen, Izarraitz Bizirik proiektuarekin batera, Deba Beheko Turismo garapena bultzatzeko.

Erailuolzak botatzeari ekka diote



Apirilaren 28an izan zen Udal Plenon, Arnobide 1 Muga- ketaren proiektua onartu zen. Hau betetzeko, aste honetan bertan Arnobide 1 etxea bota da kalearen bidesarrera zabaldu asmoz. Bestalde, irailaren 29ko Udal Plenon, Garagarza 10 etxebizitza botatzea onartu zen, eraikuntzaren jabeak hala eskatuta, aipatu etxebizitza erabat hondatua baitago.



Argazki hau **Martzelina Zabaletak utzi digu**. 1931n ateratako argazkia da eta bertan aurrezkua dantzatzen ari dira. Mendaron izan zen lehen dantza taldea ikus dezakegu erretratuan. Lehen irakaslea **Gregorio Santa Kruz** izan zen.

Hona hemen izen abizenak:

Aurrezkuan: **Jose Zabaleta**. Atzezkuhan: **Simon Zabaleta (t)**. Erdian ezkerretik eskubira: **Bittorio Garate (t)**, **Martzelina Zabaleta** eta **Ramon Ansola "Kaletxonekua" (?)**. Atzean ezkerretik eskubira: **Joseba Garaitonaundia**, **Jose Triondo "Kapain"**, **Ramon Esnaola "Kotxerokua" (t)**, **jose Loiola "Lasalde" (t)** eta **Inaxio Garaitonaundia (t)**.

99ffit Reet Ikastolako umeen entrenatzailea



- Noiz hasi zinen entrenatzaile lanetan? 1992-93 ikasturtearen haseran.
- I Zenbat ume entrenatzen dituzu? Zortzi pertsonaz osaturiko lau talde dauzkat, adin ezberdinekoak. laz baino gutxiago, batzuk federatu egin baitira.
- 1 Zer behar da beraiekin egoteko? Pazientzia eta afizioa.
- Zein kirolelan aritzen zarete? Futbolelan, saskibaloian eta eskubaloian.
- 1 Zer asmo aurten? Elgoibarko eskolarteko torneoan finalera heldu nahi genuke, batez ere umeek kirola ikasi eta afizioa har dezaten.
- 1 Neskak ala mutilak? Ez daukat preferentziarik.
- Futbola ala eskubaloia? Futbola.
- 1 Gogor egin behar al zaie umei? Bai, gehienetan bai.
- 1 Ikastola berria kirol mailan berria? Entrenatzeko lektu hobeak ditu behintzat.
- 1 Entrenatzaile profesionala izateko asmorik? Ez diot sekula nere buruari horrelako galderarik egin.

"Ta bazan, sar dadila kalabazann



4

Bada Mendaron odolean daramagun grina, antzeztearena Betidanik izan dugu gure herrian, txikienetik haundienera, antzezteko ohitura. Aspaldian, ordea, ez dugu horrelakorik burutzen. Halere, dena ez dago galdua. Oraingo honetan Mendaroko hirn neska gazte ari dira antzerki munduan lanean, Arantza Egaña, Dorleta Lazarobaster eta Ainhoa Urbieta. Beti gustatu izan zaien ofizioa da hau. Gaur egun Debako 'Goaz' antzerki taldeko partaide dira.

- Zergatik "Goaz" antzerki taldea?

- Orain bost urte "Goaz"ek ikastaro bat antolatu zuen. Ikastaroa Eneko Olasagasti zuzendari ezagunak eman zuen. Han hasi ginen eta "Goaz"ek bi pertsonen beharra izan zuenean gu joan ginen.

- Noiz sortu zen "Goaz"?

- Aurten 20. urteurrena da eta ospatzeko hainbat ekintza antolatu dugu. Hamabost egunetan zehar hitzaldiak, mahai inguruak eta abar izango dira. Lokal berria ere inauguratu dugu aurten, asko kostata.

- Zinea ala antzerkia?

Dударik gabe antzerkia. Antzerkiak beste bizitasun bat dauka, pertsonalagoa da eta merito gehiago dauka.

- Antzezlerik gustukoena?

Ane Gabarain eta Elena Irureta.

Noski, gure taldekoak oso onak gabela ez dago dudarik.

- Monologoa, parodia ala drama?

- Generoa baino garrantzitsua goa kalitatea da. Halere, jendeak nahiago du barrea eragiten dion antzezlan.

- Zein laguntza ditu "Goaz"ek?

Debako Udaletxeak ematen diguna, bestelako dirulaguntzak eta aktuzio bakoitzean

kobratzen duguna.

- Zein asmo duzue aurrera begira?

- "Amateur" izaten jarraitzeko asmoa dugu urte askoan.

- Bizirik al dago antzerkia?

- Askok galdu da. Udaletxeek ez dute asko laguntzen eta jendea tira egin behar zaio ikustera joateko. Gainera amateurrek ez ditugu profesionalak dituz ten bideak, telebista, irratia eta abar. Halere, aspaldian profesionalak amateurren munduan sartzen ari dira, guri lekua kenduaz. Euskal Herrian ez dago leku egokirik antzezte lana burutzeko, eszenatokiak aldeztu aurretik neurtu eta moztu behar izaten dira.

- Euskararekin arazorik?

- Bai, lotsagarria da. Euskara normalizatu arte zenbait lekutan, herri erdaldunetan, ezingo dugu parte hartu. Bestalde, guk ez dugu erderazko eskutitz bat bera ere jasotzen.

- Zein da zuen azken antzezia-na?

- 100 urte bete dira Manuel Lekuona jaio zela eta bere lan batean ari gara orain, "Eun Dukat". Oartzunen aurkeztu genuen, Lekuonaren jaioterrian, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Sei emanaldi eman-gu ditugu, horietatik bi Deban, azaroaren 19an.

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Zigor Txurruka, Alaitz Vives, Garbiña Zabala.

Pr
Migro Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Hitzegiteko: landu zure ahotsa!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

DEITU 'zr 74 15 56 - 10 03 51

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK
zumum~

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza. 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

Jose Clerigué

ONENAKo jostuna



- Zergaitik Onena?
Zer hobeia gure produktua markatzeko Onena izena baino?
- Zeri sartuko zenioke orratz bat?
Printzipioz globo bati baina gaur egungo egoera, langabezia eta abar, desagertu eta hobeago bat sortzea nahi nuke.
- Zerk behar du jostura on bat?
/ Kalitatezko traje batek beti behar du jostura on bat.
- Zure bizitzan patroï bat jarraitzen duzu ala espontanea zara?
Bizitza espontaneoki bizitzea gustatzen zait.
- Zure gorputzeko zein atali jarriko zenioke petatxo bat?
> Daukadan adinarekin nere gorputzeko atal askok behar dute petatxoa.
- Malla batzuk ala kanpanadun prakak?
Nahiago ditut estuagoak direnak.
- Korbata ala pajarita? **1** Korbata, dudarik gabe.
- Kolorerik dotoreena? **1** Beigea esaten dute dela dotoreena, baina niri askoz hobeto geratzen zait urdin iluna.
- Zer ikusi nahi zenuke "ojal" batetik?
Gazteak lanean ikusi nahi nituzke.
- Osagarri bat? **1** Erloju on batek asko jaxten du, baita oinetakoek ere bai.
- Zerk "mozten" zaitu?
Espero ez ditudan bat bateko egoeren aurrean nola jokatu ez jakiteak.
- Zure bizitzan egin izan dituzun "metrorik" gogorrenak?
> Bizitza bera aurrera ateratzea, lana, seme-alabak...
- Zer esaten dizu Galeseko Printzeak?
> Tela polita da, gaur egun ez da gehiegi eramaten baina oso polita da.
- Gustuko al dituzu "pata de gallo" direlakoak?
> Jazteko nahiago dut Galeseko Printzea edo traje arraiaduna. Hala ere, nahiago ditut "pata de gallo" horiek trajean aurpegian baino.
- Modaren aldekoa? **i** Bai, moda gustatzen zait nahiz eta gure denda adin konkretu bati zuzendua egon eta horrek asko mugatzen duen.
- "Aunque la mona se vista de seda..." ?
I Arropak asko laguntzen duen arren, "mona se queda".
- Erakutsi ala sujeritu? **1** Nik beti nahiago izan dut erakustea.
- Lotarako pijama ala larrugorritan? **1** Pijama, beti pijama.
- Bizitza honetan zer eutsi behar da ondo "imperdible"arekin?
Bi pezeta badauzkazu bi pezeta horiei ondo eutsi behar zaie.

KORRUPZIOA

DOINUA:
Pasaiako

Laburbildu ditzagun
hemen notiziak,
azken egunotako
saltsa nagusiak.
Bartzelonatik datoz
haize nahasiak
horrelakoetaz gaude
ohitutzen hasiak.

Roldan eta Rubio
orain De la Rosa
hondartzan hondarra haina
poltsikoan xoxa.
Trinidad honentzat
a ze bizipoza!
bukatuko al zaie
bizitza arrosa?



IZASKUN ELIZBURU

wiran

nr2

urll

3

3

5

*Urriaren lin Altzolan hil zen JULIAN SAN ILTAN DEL RIOren
ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan
zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan
zaituztegun guztioi.*

E
Op

nr2

LEEM

Eigoibartarren %66ak hartu du parte Eusko legebiltzarrerako hauteskundeetan

Joan den igandean, hilak 23, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren. Errolda 9.364 pertsonen osatzen dute eta horietatik erdiak baino gehiagok eman zuen botua, %65,71k. Abstentzioa %34,29koa izan zen. EAJ/PNV izan zen botu gehien jaso zituen alderdia, 2.328 guztira, %37,84a hain zuzen ere. Gainontzeko alderdiei dagokienean, Herri Batasunak, EAK eta PSE-EEK 1990 urtean izan ziren hauteskundeetan baino botu gutxiago

jaso dituzte oraingo honetan, nahiz eta ekainean, Europar Parlamenturako hauteskundeetan izan zituzten emaitzak hobetu dituzten. Izan ere, ekainean baino jende gehiagok hartu du parte hauteskunde hauetan eta hori emaitzetan isladatu da. PPK, aldiz, Europar Parlamenturako jasotako baino 36 boto gutxiago eskuratu ditu igande honetan. IU izan da ezustekorik handiena eman duen alderdia, izan ere, 1990 urtean 44 izatetik 394 izatera igaro da. EAJ/PNVren atzetik HB izan

da bigarren alderdia Elgoibarren. Azken hamar urteotan lehen aldiz, elgoibartar bat izan da Parlainturako zerrendetan. Arnaldo Otegi HBren zerrendetain zazpigarren postuan agertzen zen. Herri Batasunak sei aulki edo eskainu atera ditu baina bostgarren postuan, ohitura denez, preso bat doa. Hori dela eta, presoak ezingo balu parlamentari funtzioa bete, Arnaldo seigarren postura igo eta haren ordezkoko izango litzateke.

	EAJ		HB		EA		PSE		P	IU		Beste butzuk		
	90	94	90	94	90	94	90	94		90	94	90	94	
Plaza Txikia	812	852	504	466	344	325	390	271	-	203	-	144	-	8
P.Muguruza	350	346	231	200	105	84	240	180	-	125	-	81	-	8
Urasandi	137	216	151	150	113	54	224	172	-	69	-	78	-	-
San Roke	435	477	171	170	211	210	141	122	-	87	-	54	-	2
Altzola	61	64	68	56	29	6	25	15	-	10	-	16	-	-
Santa Klara	110	132	27	32	54	36	8	5	-	4	-	-	-	-
Zaharren Biltokia	318	241	96	87	87	78	66	51	-	32	-	21	-	3
Guitira	2.223	2.328	1.248	1.161	943	793	1.094	816	173	530	44	394	1	21



PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

41 1^o P.O.* RNA

40'

Santa Klara -22
IT 7426 32

Fartero

OKINDEGIK

OPILEDGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74.07 35

1.657-1.660 urte bitarteko hobekuntzak

E Ondoren, 1657-1660a bitartean, Mariana EncarnaciOn U6illa zelarik abatesa, Santa Klaran egin ziren hobekuntzak eta hedakuntzak aipatuko ditut.

Ei 06ra hauek ez ziren enkantean atera. Egunsariak edo jornalak ordaindu ziren eta ofizialen otorduak monjen kontura izan ziren.

- Bi logelen ormak bai eta beheko klaustroko hiru horma ere eraiki ziren, euren ate leihoekin. Guztira, 15,35 estadoko neurria zuten eraikitako hormek, Zati batek hiru oineko lodiera zuen (0,837 metro). Beste batek bi oin Yerdikoa (0,697 m) eta hirugarrenak 6i oineko lodiera (0,558 m). Hauen kostua 2.930 errealekoa izan zen. Hemen sartzen ziren karea, hondarra, garraioa eta harginen 667 egunetako ordaina.

□ Logela aldatu zen eta beheko aldean 30 leiho handi eta txiki ireki ziren. Hauetan beste hainbeste burdinsare jarri ziren. Bakoitzak 946 libra (484,5 kilogramo) pisatzen zituen eta 855 erreal balio zuten.

Bi gelen teilatuak eraiki ziren lehendik zeuden zaharrekin bat egin arte. Zolu berria jarri zen, 64,5 estado egur zuen zolua. Antolakuntza

gelara zeraman eskailera nagusi bat ere eraiki zen eta gela berri horretan, zelda eder bat egin da, ate eta leiho eta guzti.

NHauetaz gain eliz ataria eraiki zen, elizako atearen gaineko teilatu babeslea, hain zuzen. Guk ezagutu genuen eliz ataria burdinezko hiru zutabek eusten zuten, 1906. urtean jarri ziren eta 90 ptako kostua izan zuten.

E Hurrengo albisteez, monastegi barrukoloeharrak aipatzen dituzte. Honelo, burdinezko uztaiak zituen upel berri bat egin zen eta sagardoa egiteko erabiltzen ziren tolareetara zolu berria bota zen.

□ Ondoren, obren kontuak azaitzen dira: arotzei eta beren maisuei 2.555 egunsari ordaindu zitzaizkien, 5.632 erreal. Egurratik 9.403 erreal, iltze eta upelaren uztaiagaitik 1331 erreal. 24.450 teila, 2.000 adreilu garraio eta guzti, 37 kinta igeltsu eta ofizialen oheen alojera (kanpokoak baitziren) 2.4000 erreal kostatu ziren, Kanpotarrentzat monjek jarri zituzten bazkariaren kostua 9.171 errealekoa izan zen (garia, urdaia, koipea, gazta, arrani freskoa, olio, ardaa...).

PELLO ARRIETA

Sor Sabina Landa

(1889 - 1984)



Karidadeko alaben Iagundiko kide egin zen 1916an; urtebete beranduago heldu zen Elgoibarrera. Sabinaren hileta egunean Don Karlos Agirrek, parroko izandakoak, Sabinaren bizitza labur bildu zuen honako bertso hauetan:

*o Larogei eta hamalau urtez
biz.i izan zera lurrean
eta hoietatik urte gehienak
Elgoibarko ospitalean:
oii aSko eginez igaro zera
z..ure bizitz,a luzerm,
itiork ez, daki, Jainkoak ezik,
egin dezuna isilean.
Ama izan zera,
bihotz, xamurrez,
amarik ez zutenentzat,
lagun leiala, bihotz z.,abalez,
bakarrikan z.eitdenentzat;
aterpe bero, bihotz haundiaz,
etverik ez zmenentzat,
pak.e baretsu, irripar gozo
gaixo ta larrituentzat.*

*Kristau fedeak ez clizu kendu
emakumezko doaia:
lekahne deiak ez du gutxitu
zuga euskaldun usaia:
zeurez bazinen zezudun eta
zeurez bazinen
lekahne deiak edertu z,izun
jatorriz z.enuen gaia.*



WITZ
XRDOZIK
ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA
**Etixerainoko
banaketa**
Errosario 18
17 74 02 37

imanolé
GOZOTEGIA
San Frantzisko 44, 74 41 37 !


karliai20
San Franzisko 12-14, TeL 74 05 49

Arrieta
modak
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

M | T | Z | A | K

Gipuzkoako Haurren L Judo Jokuak igandean

Gipuzkoako Haurren I. Judo Jokuak burutuko dira igande honetan, hilak 30, Olaizaga kiroldegian goizeko 10etatik aurrera. Ibai gimnasioko judoek zazpi eta hamairu urte bitarteko haurrentzat antolatzen diren joku hauetan parte hartuko dute beste 300 haurrekin batera. Txapelketa honekin aurtengo judo denboraldiari hasera emango diote judoka elgoibartarrek. 1981. urtetik 1982. urtera bitartean jaiotako judoek Gipuzkoako Txapelketan ikus daitekeen mailako borrokaldea eskainiko dute Olaizaga kiroldegian, Gipuzkoako txapelketan parte hartzen duten judoka berak arituko baitira igandean jokatuko den txapelketan. Joku hauek herriz herri antolatu ohi dira, txandaka, eta honako honetan Elgoibarren burutuko dira lehendabizikoz.

Kirol bendajeei buruzko ikastaroa

"Kirola eta Euskara" programaren harruan, kirol bendajeei buruzko ikastaroa hasiko da azaroaren 12an Eibarko Ipurua kiroldegian. Alejandro Altuna medikuak azkarrago errekupemtzeko bendajeak, orkatileko, belauneko edota eskuetako lesiorik ez edukitzeko, edota lesio haten ondoren bendajeak nola egin daitezkeen erakutsiko du. Kirolari guztiei zuzendutako ikastaro honen zenbatekoa 500 ptakoa izango da Deba bailarakoentzat, eta 80() pta. gainontzekoentzat. Izena emateko, 74 44 15 zenbakira deitu.

Lidia Fernanc ez:

"Gauden mailara heldu aurretik gol asko sartu dizkigute"

1 Txikitan, futbolista jatzzen zinenetako zara? Ez, ez. OHOn hasi nintzen jokatzen, eskolarteko jokuetan, lagunen arteko gauza bat bezala. Gero jokatzen hasi ginen.

1 Eta gaur arte. - Egunkarian, Eibarren taldea osatzeko neskek behar zituztela ikusi genuen. Duela sei urte izan zen. Haseran Urki taldean hasi ginen baina orain beste batean ari gara, Eibartarrak taldean.

1 Zein mailatan jokatzen duzue? - Lehenago nazionalen. Urkin kanpokoekin jokatzen genuen baina orain ingurukoekin jokatzen dugu. Orain 3 urte igo egin ginen eta gorago beste maila hat dago baina zaila da igotzea. Kanpoan jokatu beharko genuke, bidaiak luzeagoak dira eta askok kanpoan ikasten dute, horregatik da zaila.

Zein postutan jokatzen duzue? Defentsan, eskumako hegalean.

1 Eta nola moldatzen zara?

Nahiko ondo, beti sartzen digute golen bat baina...

1 Eibartarren artean, elgoibartar morderoa. Zenbat zarete? - Bost bat uste dut, Yoli Mateo, Maite, Ura-sandiko bi neska hasi berriak eta Aitziber Olaizola, baina azken honek

- Adina: 22
- Kiniela egiten duzue? Bai, gehienez likoa tokatu zait.
- Athletic ala Erreala? Erreala.
- jokalari gogokoena? Asko, agian Laudrup.



lagata dauka.

1 Elgoibarren jokatzeako asmorik? - Hemen jokatzea, atzera egitea izango litzateke. Elgoibartarrak hasi berriak dira eta ondo dabilta, baina gure ekipoa aurrean dago orain eta asko kostatu zaigu horsa heltzea, gol asko sartu dizkigute.

1 Nola zabiltzate aurten? - Ondo, hiru partidutik hat berdindu egin genuen kanpoan, beste bat etxean irabazi eta igandean Tudelan, irabazi egin genuen 2 eta 5.

1 Mari-mutil deitu izan dizute futboleko jokatzeagatik? Inoiz ez. Ez dakit, tabernetan konturatzten naiz telebistara partiduari begira dagoen neska bakarra izaten naizela baina... niri gustatzen zait.

1 Futbolagatik eztabaidatzen duzue? Bai, norbaitek gertatu ez dena esaten badu eta kontrakoa denaz ziur banago, salto egiten dut.

1 Gizonen kontua al da futbola? - Ez, ezta gutxiago ere. Futbola,

beste edozein kirol bezala, edota edozein lan bezala, ez da eskusiboki gizonena. Indarrean eta abiaduran bakarrik irabazten gaituzte. Gainera, crero eta nesken talde gehiago dago, ia herri bakoitzean bat.

12 P	ridraiP	ePLOPLP	duP	Eiti
5		<p>Urriaren 23an hil zen RAMON EPELDE ARRIOLAREN ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.</p>	1	1
E	ELP nr		PLIEPEP	1111

Atletismo Elkarte berria Mintxeta deituko da

Aste honetan bertan, asteazkenean hain zuzen, eratu zen legalki Mintxeta Atletismo Taldea. Ego-Toki Elkarteak atletismoaren munduan lagatako hutsunea betetzera dator elkarte berria. Mugerza Memoriala antolatzen, dena den, Ego-Toki elkarteak jarraituko du. Aurten gainera, lasterketa otsailaren 5era atzeratu da.

Mintxeta izena aukeratu dute **azkenean** elkarte berriarentzat. Hiruzpalau izen zeuzkaten aukeran: Mintxeta, Txankakua eta Ego-Toki, baina azkenean lehenena hautatu dute, Mintxetan bertan dagoelako atletismo pista eta bertan izango duelako klubak egoitza. Ego-Tokikoen errelebita herriko 12 hatxidek hartu dute, tartean, atletismo entrenatzaileak, monitorea, korrikalariak eta hezkuntza fisikoan lizentziatuak daudelarik. **Txankakuaren laguntza**

Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzarien Elkarteak diruz lagunduko duen

elkarterariko bat izango da Mintxeta Atletismo Taldea. Laguntzaren zehatekoa ez da zehaztu, atletismo taldearen aurrekontua egin gabe baitago. Txankakuaren laguntza jasoko balute, Mintxeta-Txankakua izena erabiliko luke klubak. Txankakuaren laguntza ezezik, Udalak ere laguntza ekonomiko emango die ziur aski.

Entrenamenduak Institutuan, Ikastolan eta Mintxetan izango dira. Gazteenak hasi dira dagoeneko entrenatzen Alberto Revuelta eta Daniel Rino entrenatzaileen agindupean. Konpetizioan arituko diren korrikalarien entrenamenduez Marill Mora



• • **Gaztetxoek hasi dira dagoeneko entrenatzen.**

eta Aitor Kapanaga arduratuko dira. Entrenamendu lanetan herriko beste zenbait korrikalarik eta lizentziatutako lagunduko dute. Federatuek, bakoitzak bere lizentzia ordaindu

beharko dute, eta oraindik ziuerra ez bada ere, nontzekoek kuota sinholiko bat ordaindu beharko dute desplazamendu ttasueti aurre egiteko.

tum

F31 nnnnnnnnir

ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 29
16,00: Elgoibar Urola (K1dete mutilak)
17,30: Elgoihar - Durango (Senior neskek)

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 29
10,00: Urki - Bergara (Jubenilak)
12,00: Urki - Almen (Jubenilak)
15,45: Elgoibar - Mundaiz (Jubenilak)
17,30: Elgoihar - Zestua (2. errejionala)

Igandea 30
10,00: Urki - Mutriku (2. errejionala)
12,00: Eibartarrak - Gure Txokoa (Neskek)
16,30: Elgoihar - Bergara (Infantilak)

Asteartea 1
16,30: Elgoibar - Antoniano (Neskek)

FUTBITOA Urasandin Igandea 30
10,00: Lueky Luke - Tropieo Karkis P rrogei Duro
11,00: Pedruseo - Revel Urbi SportimJ Resto del Mundo
12,00: Mirnox - Hunde Verboten de Chile - Fotero

ESKUBALOA

Zarautz 5- Elgoihar 19 (Kadete neskek)
Ereintza 8 - Elgoihar 27 (Kadete tntuilak)
Elgoibar 21 - Bergara 16 (Jubenilak mutilak)
Jauja 10 - Elgoibar 9 (Senior neskek)
Txankakua Elgoibar 13 - Beasain 23 (Senior mutilak)

FUTBOLA

Elgoibar 7 - Bergara 0 (Kadeteak)
Elgoibar 1 - Ostadar 0 (Neskek)
Martutene 0 Elgoibar 1 (Jubenilak)
Eibartarrak I - Elgoibar 2 (2. errejionala)
Lagun Onak 1 Elgoibar 0 (Infantilak)
Haundi 1 Hernani 0

FUTBITOA

King-Kong 2 Kosakos 2 Aldavas 4 Oraiko Cafe 3
D. Kalimotxo 1- Ametsa 0 Haritza 2- San Roketarra 3
La Maxia () - G. Garcia 7 Replastisa 3- Rua 5

AKOIN, s.a.:

Neurrira egindako makina fabrikatzaileak


Acme zen enpresetatik sortu da **AKOIN**. *Aikartu*, *Aizdon* eta beste zenbait enpresak osatzen zuten taldean lehen erregulazioa gertatu zenean, zenbait langilek,

Aikartukoak gehienak, **AKOIN** sortu zuten. Asmoa lanpostua mantentzea zen, krisi urte gogorrei ahal zen moduan aurre eginez.

Pedro Muguruza Etorbideko lokaltxo batean hasi ziren makinak konpontzen, noiz-behinka, mekanizazio lanak eginez. Haserako asmoa, fabrikatzeaz gain, beste batzuek egindakoa saltzea zen. Ezer saltzeko sasoi txarra zenez, krisi garaia, fabrikazioari ekin zioten. Makina berririk saltzen ez zenez, zaharren konponketari esker aurrera egin zuten. Egun ez dituzte makinak konpontzen baina makinaren birmoldaketarekin jarraitzen dute.

Alderdi komertzialean, bezero ezberdinekin lan egiten dute, baina beti kopuru berdin batekin, 12ko kopuruarekin. Gehienak automobilaren alorrekoak dira, baina badira informatika alorrekoak, nekazal mundukoak... Bezero bakoitzak mota ezberdineko makinak eskatzen ditu, hori dela eta, *Akoinek* makina ezberdin asko fabrikatzen ditu. Tornu bereziak egiten dituzte, ia ia neurrira egindakoak, pieza bakoitzera egokitutakoak. Normalean serie motzak egiten dituzte, seikoak, zazpikoak edo zortzikoak. Errektifikatzaileen kasuan ere, modu berean egiten dute lan. neurrira.

Teknologia aldetik, brotxak egiteko errektifikatzaileetan erabiltzen clen teknologia da aipagarriena. Estatuan eta European ere gutxi ba-



la **Muntaia** sekzioa. Goiko argazkian diseinu bulegoa.



ENPRESAREN FITXA

- ✗ **IZENA:** AKOIN, S.A.
- SORRERA URTEA:** 1981
- ✗ **SORTZAILEAK:** Abdon Ansola, Victoriano Arnaiz, German Alcalá, Esteban Egia, Jose Luis Zabala, Julian Fundazuri eta Eduardo Martinez.
- ✗ **GERENTEA-HARREMANETARAKO PERTSONA:** Luis Maria Ostalaza.
- it** **IHARDUERA NAGUSIA:** Erremintcrnakina
- ✗ **LANGILE KOPURUA:** 23
- ✗ **URTEKO FAKTURAZIOA:** 300 milioi.
- ✗ **HELBIDEA:** Ibaitarte kalea 15, Ibaitarte Industrialdea.
- ✗ **TEL/FAX:** 74 26 00 / 74 02 31

tzuk aritzen dira alor honetan. Produktibitatea hobetzeko sistema berriak ateratzen ahalegintzen dira. soft informatikoak garatuz. Bezero bati, esaterako, rodamientoen 12 familia ezberdinekin lan egiteko gai zen soft bat egin zitzaion.

Erektifikatzaileen eta tornuen merkatua Estatu mailakoa da, *Akoinek* ez du fabrikatutakoa esportatzen. Normalki aipatutako 12 bezero kopuruarekin egiten dute lan, bezero kopurua handitzeko asmorik gabe. Bezero gehiagorekin lan egiteko beharrezkoa izango litzateke langile gehiago hartzea eta enpresa bera ere handitzea. Dena den, urte haseratik hona hiru langile gehiago hartu dituzte.

Akoinen bezeroen artean, *Alecop* Kooperatiba dago. Hezkuntzaren munduari zuzendutako makinak fabrikatzen dituzte *Alecopen*, makina industrialak bezalakoak dira baina tamaina txikiagokoak. *Akoinek* makinak fabrikatzeko beharrezkoak diren burdinezko osagai guztiak saltzen dizkio *Alecopi*.

10.000 amez Liko dira datorren astean zehar Herriko Antzokian

Deba Beheko Mankomunitateak, Elgoibar eta Plaentxiko OHoko 6. mailako haurrentzako txotxongito saioa antolatu du azaroaren 3rako. AstebukaeraK begira, ostiralean hain zuzen ere, beste antzezlan bat izango da Herriko Antzokian, oraingo honetan Udal Kurtur Zerbazua antolatuta.

Azaroan zehar, hondakinen bilketa selektiboaren garrantziaz jabetzeko sentsibilizazio kanpaina burutuko da Gipuzkoa osoan. Ildo honetatik, Deba Beheko Mankomunitateak ingurugiroarekin lotutako txotxongilo saioa antolatu du azaroaren 3rako, goizeko 9,30etan Herriko Antzokian. Elgoibar eta Plaentxiko OHoko 6. mailako haurrei zuzendua dago "Mikito" izenburuko lana eta ordubeteko iraupena dauka. Saioaren bukaeran Gipuzkoa osoa zeharkatuko duen autobus batean kokatutako birziklariaren abantailei



• "Geroa" taldeak drogen errealitatea erakutsiko du antzerkiaren bidez.

buruzko erakusketa ikusteko aukera izango dute. Autobusera sartzeko zain dauden bitartean, jokuak egingo dira kanpoan.

"Las amazonas del caballo"

Aldundiak antolatutako antzerki zirkuitoaren barruan eta Udal Kurtur Zerbitzuaren eskutik, Durangoko *Geroa* antzeztaldeak Pepe Orteszaren zuzendaritzapean, Chatono Contreras-en lanean oinarrituta-

ko "Las amazonas del eaballo" antzezlan taularatuko du azaroaren 4ean. Gazteei zuzenduriko antzezlanak, droga munduari buruzko errealitatea erakusten du heroina hartzen hasi diren gazte batzuen bitartez. Ikuslearen sentsibilizazioa lortu eta drogazaleari buruzko iritzia aldatzea lortu nahi du antzezlanak.

Saioa gaueko 22,15etan hasiko da. Sarrera, 350 pta.

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**P
U
B**

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

.1dealeeotl

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkoa Kutxaren babespean, 1994ko "RESURRECCION MARIA AZKUE" NARRAZIO ETA OLERKIEN GAZTEENTZAKO SARIA antolatu du. Bi maila izango dira, 1981, 82, 83 eta 84an jaiotakoak batetik eta 1977, 78, 79 eta 80an jaiotakoak bestetik. Lanak abenduaren 16an baino lehen bidali behar dira Bilbao Bizkai Kutxaren Kultura Soilera, 238 posta kutxatila, Bilbo.

Bilboko Udaletxeak "FOTOGAZTE" LEHIAKETA antolatu du. Argazkiak zuri beltzean edo koloretan aurkeztu daitezke. Azken eguna azaroaren 1 la izango da. Sari bakarra emango da, 100.000 pta zuri beltzeko argazki onenarentzat eta beste horrenbeste koloretako argazkiarentzat. Informazio gehiago (94) 445 52 00 telefono zenbakian.

Japoniako Hyogo Kenritsu Kodomo-no Yakatak 18 urtetik beherakoentzat lehiaketa bat antolatu du. **ESKULTURA BATEN MARRAZKIA** bidali behar da. Saritzen den marrazkiko eskultura hori gero, Hyogoko Childrens Center-ean (Umeentzako Egoitza) jarriko da. Izena emateko azken eguna 1995eko ekainaren 30a da. Informazio gehiago jaso nahi duenak Ediciones destino, S.A. Balmes, 4 beheo. 08007 Bartzelonara jo dezake.

Araudi berrizt ikasturte berrian



Joan diren astelehen eta asteartean, 24 eta 25ean, gurasoen ohizko asanbladan aurkeztu eta onartu zen Elgoibarko institutuaren barne-araudi berria.

J, zan ere, Euskal Eskola Publikoaren legeak hala eskatuta, iragan ikasturtean zehar burutu zuten Lanbide Eskola eta Batxilergo Institutuko ordezkariak, oraindik aurrera ikastetxe bietan indarrean dagoen barne-araudi hori.

Honako hauek dira azpimarra daitezkeen puntu aipagarrienak:

I Orain arte ikastetxe bi izan **i e^{ll} direnak** bat izango dira aurki eta biek barne-araudi bera izatea, horretarako urrats garrantzitsua da.

A Bi ikastetxeetako ikasie, gura- **Ae^{rl}so** eta irakasleen ordezkariak egindako lanaren ondorioa da.

3 Institutuko Organoak, kudea- **3e^{ll} keta** tresnak, funtzionamenduari eta elkar-bizitzari buruzko arauak zehazten dira.

4 Hemendik aurrera "Elgoibarko **4e^{ll} Institutua**" izenez ezagutuko dira bi ikastetxeak. Gazteek, 14-16 urte bitartekoek, Arreiturren (lehen-go Batxilergo Institutuan) ikasiko dute eta nagusiek lehen-go Mekan (B.Ezenarro).

5 Ikasleen eskubide eta betehe- **5e^{ll} harrak** berdinak badira ere, horien erabilpena adinak baldintzatzen du. Horregatik, nagusiei onartzen zaien zenbait eskubide (klaseetara huts egitea, adibidez) ez zaie gazteei (14-16 urte hitartekoei) onartuko.

6 Ikasle, irakasle eta gurasoek **6e^{ll} beraien** ordezkariak izans. To dituzte Eskola Kontseiluan. Geletan aukeratutako ikasle ordezkarien artetik 8 hautatu behar dituzte Eskola Kontseilurako.

Une honetan oraindik aukeratzeko daude zenbait gelatako ordezkariak. Guztia martxan dagoenean itzuliko gara, herriz ere, araudi jaioberri honen alde onak eta akatsak azaltzera.



ALUMINIOZKO AROZTEGIA


POLIURETANO • P.V.C.

• MISTOA (EGURRA- ALUMINIOA)

K/ J.M. Linazasoro, 9.

Tren • eltoki ondoan

rg FAX 75 62 28 MENDARO



Garajeak

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean bere atearekin.
Tr 74 16 97

GARAJE ITXI BAT salgai dut Olaso poligonoan. 114 tn² eta 3'5 metrotako altuera. 1.300.000 pta.
Z 65 23 60 Josetxo (Gauzez)

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
V 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehenbailehen.
tr 74 22 70 Igor
Gauzez 9etatik 10etara

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Marraduna. Prezio onean.
ir 74 08 79

GARAJE BAT alokatzen da Urasandin.
v 74 31 07

S

Ondo dagoen FRIGORIFIKO BAT saldu nahi nuke.
v 74 28 24

"Ingeles" tipoko KOTXE KAPOTA erdiberria, eta MOISES BAT salgai ditut.
a 74 10 42

NINTENDOKO BI ZINTA saltzen ditut: Goonies II (3.5(10 pta) eta Super Mario Bros 3 (4.995 pta).
v 74 36 80 Aser
Gauzez deitu

AKORDEOI BAT erosiko nuke. Botoiduna.
v 74 00 78
Deitu eguerdian edo gauean

BROTHER TRIKOTOSA bat saltzen dut. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
v 74 18 51

PEUGEOT 405 BAT saltzen dut. Deitu 20,30etatik 22etara.
tr 14 30 52 Jose Maria

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)
v 12 04 44
Deitu eguerdian 1,30-2,00

Lana

MARRAZKETA TEKNIKOKO klaseak ematen dira. COU, UBI, IMH, LHI.
Tr 74 17 60 Iiaki
74 34 01

PERFUMEAK SALTZEKO jendea behar da. Informazio gehiagorako deitu:
V 75 10 07
4etatik aurrera

UNIBERTSITAL IKASKETAK dituen neskak edozein lan egingo luke, 5etatik 9etara.
v 74 04 86 Ana

HAURRAK ZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.
v (94) 682 78 18 Iratxe

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsalde eta astebukaeretan egun osoz eta gauzez.
v 74 09 85 Nuria/Ana

TITULUDUN PELUKERAK lan egingo luke Elgoiharren. Asteartetik larunbatera. Esperientzia dut.
v (94) 682 78 18 Iratxe

E

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axo la non.
v 74 44 04 Ana (Gauzez)
Er 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun baten beharrean gaude.
v 65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115W, itsasora begira eta gela guztiek kanpoko aldera ematen dute.
Tr 60 41 20
Arratsalde 8etatik aurrera

Bestelakoak

Pilarika egunean San Migeleko Plazan mendizale BASTOI BAT agertu zen. 1934ko datarekin.
re 74 21 40 (Menditxo)

UME TXAKETA BAT galdu nuen Leku Eder eta Maalako parkeen bitartean urriaren 12an.
Tz 74 32 94 Ana

SINLARDITZA NATURISTA VEGETARIAIOA

SUKALDAR1A: Iker Iriondo

EGUNAK: Azaroak 8, 10, 15 eta 17

ORDUTEGIA: 6etatik 9etara.

Zaharren Biltokia

● **PREZIOA: 2.000 pta.**

eIZENA EMATEKO: Elgoibarko Izarra H.E. (74 16 26). Azken eguna: azaroak 4a. kopuru mugatua.

ANTOLATZAI LEA:
Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia



OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Mentiras arriesgadas"
✓ Herriko Antzokian

LARUN BATA

12,00 ZAZPIKI IRRATIAREN
BILERA

✓ Kultur Etxean

19,00 INTSUMISIOAREN
ALDEKO MANIFESTAZIOA

✓ Maalan

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

19,30 • 22,15 ZINEA

"Mentiras arriesgadas"
✓ Herriko Antzokian

30 | 1GANDEA

10,00 GIPUZKOAKO HAUREN
I. JUDO JOKUAK

✓ Olaizaga kiroldegian

Antolatzailea: Ibai gimnasioa

19,30-22,15 ZINEA

"Mentiras arriesgadas"
%./ Herriko Antzokian

31 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Mentiras arriesgadas"
✓ Herriko Antzokian

1 | ASTEARTEA

12,00 COLLAGE ERAKUSKETA

Egilea: Elena Ormazabal

1(Kultur Etxean
Hilaren 15a arte

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Beethoven II"

✓ Herriko Antzokian

2 | ASTEAZKENA

19,30 OSASUN HEZIKETARAKO
PROGRAMA (Z1NEA)

"La chica del gangster"

Ertainetako gurasoei zuzendua

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Drogomenpekotasunen
Prebentziorako Udal Zerbitzua

3 | OSTEGUNA

9,30 TXOTXONGILOAK

"MIKITO" Antzezlan

Elgoibar eta Plaentxiko OHoko G.
mailakoentzat.

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Deba Beheko
Mankomunitatea.

19,00 ELKARMEN BILERA

✓ Kultur Etxean

4 | OSTIRALA

20,35 ANTZERKIA

Antzezlan: "Las Amazonas del
Caballo"

Antzetzaldea: GEROA

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 350 pta.

txandak

FARMAZIAK:

' 29, larunbata: Yudego

30, igandea: Yudego

31, astelehena: Bidasolo

1, asteartea: Bidasolo

2, asteazkena: Bidasolo

3, osteguna: Bidasolo

4, ostirala: Bidasolo

OKINDEGIA:

30, igandea: EIZAGIRRE

1, asteartea: FOTERO

121 1-11

EII 

MENTIRAS ARRIESGADAS

USA 1994

Zuzendaria: James Cameron

Antzezleak: Arnold

Schwarzenegger, Jamie Lee
Curtis, Bill Paxton.

Harry Tasker Gobernuko Omega
agentziarentzat lan egiten duen
agente berezi edo espia bat da.

Harry ustezko terrorista
internazional baten Suizako etxea

miatzen dago. Segurtasun neurri
zorrotzak gainditu ondoren, jai

dotore batean sartzen da bertako
ordenagailu bat, kanpoko


furgonetan dauden lankideen
ordenagailuari konektatzeko.

Jaian arte tratante eder bat
ezagutuko du, ondorengo

ikerketen zentru izango dena.

Harryren bitzita oso arriskutsua
da, baina bere emazteak, 15 urtez

ezkondata egon arren, ordenagailu
saltzaile arrunt bat dela uste du.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behe
Tel-Fax: 74 04 89



Kafetegia

*HY101111-) a WILM
ILT11001\$L.7*

**Automatismo Oleo-Hidrauliko Industrialak
Sistema Neumatiko eta Hidrauliko didaktikoak**

Ibaitarte kalea, 21
Tel.: (943) 74 21 30 74 43 97
Faxa: (943) 74 27 08
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



***Estarta
Ingenleria
Maquinaria s.a.***

Autonomia, 1
147 Postakutxa • 20870 ELGOIBAR
Tel. 74 11 00 • Faxa 74 17 58 • Telexa 38606 SIGMA E

kutxan



merkeago daukazu

E TXEBIZITZA-KREDITUAK

Badakizu: kutxak eskaintzen dizu finantzaketarik onena. Eta orain, gainera, nahi al duzu, etxebizitzari dagokionez, kutxak zure alde egin dezakeen guztiaz hitz egin dezagun?

Nahi duzun etxea bilatzen eta aukeratzen laguntzen dizu. Erosteke eman behar dituzun urrats guztien gainean aholkatzen zaitu. Gehien komeni zaizun finantzaketa ikertzen du zurekin batera. Eskubidea duzun onura fiskalen berri ematen dizu. Baita behar dituzun aseguruena ere... Dena, zure oraingo hipotekari dagokiona ere barne, **Kutxa Etxebizitza-Zerbitzuan**.

Zatoz **kutxako** edozein buiegotara eta berehalaxe jabetuko zara. Orain, etxebizitzarekin zerikusia duen guztia, **kutxan** merkeago daukazu-eta.

etxebizitza

'1 1

zerbitzua

Informa zaitez zeure sukurtsalean edo dei egiguzu

900 40 50 60.,

DEIA D OHAINIK

... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa
taja gipuzkoa san sebastd,n